

III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

AMURRIOKO ESQUALDEKO HAUTESKUNDE BATZORDEA

Amurrioko eskualdeko Hauteskunde Batzordea Eusko Legebiltzarreko 2016ko hauteskundee-tarako luzatzea eta bere osaera

Ekainaren 15eko 5/1990 Legea, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeena, betez eta, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak deitu direnez 2016ko irailaren 25erako, abuztuaren 1eko 23/2016 Dekretuz (abuztuaren 2ko EHAA), luzatu egiten da Amurrioko eskualdeko Hauteskunde Batzordearen agintaldia, 2016ko abuztuaren 5ean erabakitakoaren arabera. Hauxe da Amurrioko eskualdeko Hauteskunde Batzordearen osaera:

- Batzordekide judiziala: Vanesa Murillo Villaverde, Amurrioko lehen auzialdiko eta instrukzioko 1. ZLUPeko epaile titularra.
- Batzordekide judiziala: Arrate Romaneli Martínez, Amurrioko lehen auzialdiko eta instrukzioko 2. ZLUPeko epaile titularra.
- Batzordekide judiziala: María Jesús Mendia Gobantes, Aiarako Epaitegiko bake epaile titularra.
- Batzordekide ez judiziala: Begoña Aldama Buruaga.
- Batzordekide ez judiziala: Jon Iñaki Solachi Martín.

Vanesa Murillo Villaverde aritzen da Amurrioko eskualdeko Hauteskunde batzordeburu lanetan.

Leire Echevarría Zugazaga Amurrioko lehen auzialdiko eta instrukzioko 2. zenbakiko Justizia Administrazioiko letratua aritzen da Amurrioko eskualdeko Hauteskunde Batzordeko idazkari lanetan.

Hala ere, aurreikusten da 2016ko abuztuaren 12an batzordeko idazkariak utzi egingo duela Amurrioko lehen auzialdiko eta instrukzioko 2. zenbakiko epaitegiko idazkari lana (Justizia Administrazioiko letratua); beraz, uzte hori gertatu eta ordeztu egin beharko da Amurrioko eskualdeko Hauteskunde Batzordeko idazkari kargua.

Eta hala jasota gera dadin, eta ekainaren 15eko 5/1990 Legeak, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeena, 31.3 artikuluan ezarritakoa betez, batzordeburuak erabakitakoaren arabera, ediktu hau ematen dut.

Amurrio, 2016ko abuztuaren 5a

Amurrioko eskualdeko Hauteskunde Batzordeko idazkaria
LEIRE ECHEVARRIA ZUGAZAGA